



## MESFIDA ZAITEZ

Bea Salaberri

MARTXOA  
2024

Laurendia gazteari mesfidatzeko esaten diote. Esaten dio aitak, esaten diote adiskideek, bai eta, azkenean, bere buruak ere. Nafarroa Behereko landa eremu batetik Baionara ikastera joanda, inguruarekin batera aldatuko zaizkio jakin nahiak, piztuko kontzientzia politikoa eta sortuko ordura arte bururatu ere egin gabeko zalantzak. Horrela, ETA erakundearen laguntza sarean hasiko da, fardelak batera eta bestera eramaten lehenik, bere etxean kideak aterpetzen gero. Laurendiaren istorioa kontatzen bazaigu ere, historia kolektiboa baita hau, garai nahasi eta oposizioz betean hamaika emakume aritu baitira, ezkutuan eta espanturik gabe, engaiamenduaren sarean.

### ELEBERRIA

ISBN: 978-84-19319-87-6  
ORRIALDEAK: 408  
FORMATUA: 12 x 19  
PREZIOA: 20,00 €

EUSKAL HERRIA GATAZKA ABERTZALETASUNA

- Borroka armatuaren ezohiko ikuspegi bat ematen du eleberriko protagonistaren eskutik: babes eta laguntza sarean ibilitako emakumeena.
- Memoria kolektiborako balioko duen eleberririk indartsu bat harilkatu du, fikzioa eginez errealitateari komeni bezain hurbiletik segituta.
- Autoreak, aurretik, *Baionak ez daki* (Susa, 2015) helduentzako ipuin liburua argitaratu du, bai eta *Oihenartea ez da hunki* (Elkar, 2023) eta *Baiona* (Elkar, 2019) helduak euskalduntzeko liburuxkak ere. Hau du lehen eleberria.



### BEA SALABERRI

1979 Donamartin (Nafarroa Beherea) sortu zen, eta han iragan zituen haur eta gazte denborak. Euskal filologia ikasketak egin zituen Baiona eta Bordeleko unibertsitateetan. Helduen euskalduntzearen alorrean lan egiten du, euskara irakasle eta didaktikari gisa, iparraldeko AEK-n. Bestalde, gustuz parte hartu izan du hainbat ekimenetan, hala nola kultur elkarte, antzerki talde eta aldizkaritako kolaboraziotan. Idazketan, *Baionak ez daki* (Susa, 2015) helduentzako ipuin liburua argitaratu du, bai eta *Oihenartea ez da hunki* (Elkar, 2023) eta *Baiona* (Elkar, 2019) helduak euskalduntzeko liburuxkak ere.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus